

ASTEAZKENA

2019/05/08

7. urtea, 1.052. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Liga irabazita igoera fasea jokatuko du Tolosa CF Eskubaloiak, Malagan

Maiatzaren 17, 18 eta 19an jokatuko dira bigarren mailara igotzeko partidak; tolosarrek Gaes Malaga, Sant Quirze eta Ikasa Madrid taldeak izango dituzte aurkari // 7

Tolosa CF Atletismo bikain, Euskadiko Klub Artekoan

Emakumeek hirugarren egin dute eta gizonak seigarren; taldeko giro ona nabarmendu dute, «talde bezala funtzionatzen duzunean dena da askoz errazagoa», esan dute // 7



6025 artistak erakusketa jarri du Zizurkilgo Plazida Otaño liburutegiko erakusketa gelan. J. MIRANDA

6025 artistaren artelanak bildu dituzte Zizurkilen

Gasteizko sortzailearen 20 grabatu ikusi daitezke ekainaren 16ra bitarte Plazida Otaño liburutegian; Maiatza Saltsan ekimenari eman dio hasiera // 2

Sutarriren 20. urteurrenako jaiak emango die hasiera kultur ekitaldiei

Udaberriko kultur egitaraua prestatu du Alegiako Udalak; bertan behera geratu da gaur egitekoak ziren 'Euskal Selekzioa: gaur egun' mahai ingurua // 3

Kulturari eta energiari egingo diote tartea Orendainen, maiatzean

Hainbat kultur ekitaldi aurreikusi ditu udalak datozen asteetarako, eta horrez gain, energia eta dirua aurrezten laguntzeko tailerrak antolatu ditu // 3

LIZARDI

inmobiliaria

San Frantzisko ibilbidea, 41
A behea • Tolosa 943 65 11 22



250.000€

Rondilla kalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Garaje itxia.



150.000€

Siervas de Jesús: 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela



199.000€

Letxuga kalea: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 bainugela. Igogailuarekin.

Grabatuak jarri ditu ikusgai 6025 artistak, Plazida Otañon

Aiztondoko liburutegiko erakusketa gelan 20 artelan jarri ditu Gasteizko artistak eta ekainaren 16ra arte izango dira bertan jarrita; aurreko ostiralean egin zuten inaugurazioa.

Jon Miranda Zizurkil

Dead Kennedys bandaren lehenengo bateria jotzaileak, Carlos Cardonak, 6025 ezizena erabiltzen zuen eta punk taldearen zalea izanik, Andoni Roblesek izen artistiko hori erabiltzen du bere lanak sinatzeko. 20 grabatu ekarri ditu Zizurkilgo erakusketa gelan jartzeko eta koadroak ikusgai izango dira ekainaren 16ra bitartean.

Iaz, Plazida Otañon erakusketan jarri nahi zuten artistentzako oinarriak atera zituen Zizurkilgo kultura sailak. Hautaketa batzordeak hilabete honetarako, 6025ren lanak aukeratu ditu eta erakusketaren inaugurazio ekitaldiarekin eman dio hasiera Maiatza Saltsan ekimenari. «Aukeratuak proiektuetako bat izan da nirea eta eskertuta nago», esan du artista gasteiztarrek.

Aurretik ere, Gasteizen bertan, Santurtzin edota Bilbon erakutsi izan ditu koadroak eta sariren bat edo beste irabazi dute bere lanek. «Grabatuak egiten ditut, nagusiki. Arte Ederretan lizentziatua nahiz eta EHUan aritu ginen garaian ez genuen ezer asko ikasi. Hala ere, grabatua irakatsi zidaten irakasle on batzuk izan nituen eta haiei esker hartu nuen afizioa». Prozesu artistikoa «luzea» dela aipatu du 6025ek, «pantailak egin behar dira, gero estanpatu, eta akatsa eginez



Artista gasteiztarrek 20 arte lan jarri ditu Plazida Otañon. J.M.

gero, berriz errepikatu behar da prozesu guztia. Teknika ez da erraza, eta ondo menperatu beharra dago».

Bere lanetan era guztietako irudiak erabiltzen ditu. «Animalienak hartu izan ditut oinarri bezala, baina baita ere giza irudiak. Niretzako orban bat ere abiapuntu egokia da artelan bat egiteko eta horren gainean lan egitea gustatzen zait», dio 6025ek. Zuria, beltza eta gorria erabili izan ditu, gehienbat, bere koadroetan, baina pixkanaka beste hainbat kolore ere sartu ditu. Lan horietako batzuk, «ta-maina txikikoak», ekarri ditu Plazida Otañora, aretora egokitutako erakusketa osatu nahi izan baitu.



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak, etzi, Subijana etxean

10:00etan hasiko da eta 'xenpelar@bertsozale.eus' helbidera idatzita eman beharko da izena; gaur da horretarako azken eguna.

Erredakzioa Amasa-Villabona

Ahozko ondareak berezko dituen ezaugarriengatik, hainbat gunetan biltzen diren datu eta dokumentazio mota ezberdinak modu bateratuan eskaintzeko beharrak bultzatuta sortu dira aurtengo Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak.

Beharizan horri ahozko ondaretik haragokoa ere bada. Herriarrei ondarea eskura jartzeko, ondarearen digitalizazio eta datu bilketa handiak egin dira azken urteotan, eta Interneten gune ezberdinetan antolatu dira. Atari batean eta bestean eskaintzen diren datuak elkar gurutzatzea ahalbidetzen duten bilaketa bakarrek aukerak garatu dira eta erabiltzaileak, klik bakar batean, ahalik eta emaitza eraginkorrena lortzen du.

Eusko Jaurilaritzak hiru datu base biltzen dituen *Liburubila* egitasmoa gauzatu du, eta hori azalduko dute Mikel Aizpuru Eusko Jaurilaritzako Ondare zuzendariak eta Francisca Pulgar Eusko Jaurilaritzako Liburutegi Zerbitzuko arduradunak. Ipar Euskal Herrian dauden euskal dokumentuen funtsak sarean modu bateratuan eskaintzeko helburua du, bestalde, *Bilketta.eus* ekimenak; Baionako Mediatekak Marie-Andrée Ouretek emango du horren berri. Artium museoko liburutegi arduradunak, Elena Roserasek, azalduko du museoko dokumentazioa eskaintzeko garatu duten sistema.

Eta, azkenik, Aitor Maritxalar informatika garatzaileak bilaketa bakarra eskaintzeko Euskaltzaindiak eta BDB Datu Baseak darabilten Solr sistema zer den azalduko du.

Igandera arte Larraulen kirol astea egingo dute, laugarrenez

Herenegun hasi zituzten ekitaldiak eta igandera bitartean, kirolaren bueltako hainbat ekimen antolatu dituzte herrian.

Erredakzioa Larraul

Astelehenean abiatu zen IV. Kirol Astea Larraulen, futbito txapelketarekin; ondoren pilota entrenamendu irekia egin zuten bertaratutakoek. Atzo, zunba irekia egin zuten herriko plazan.

Pilota txapelketarekin batera, frontenisekoa abiatuko dute gaur eta bi txapelketen finalak, ume eta helduen mailan, igandean jokatu dira kirol asteari amaiera emanez. Bide batez, gaur, tailer bat egingo dute ostatuan, *Energia behar baduzu, zer jan eta nola egin* izenburupean. 19:00etatik aurrera izango da.

IV. KIROL ASTEA

Maiatzak 8, gaur

17:00. Frontenis txapelketaren hasiera (umeak/helduak).

19:00. *Energia behar baduzu: zer jan eta nola egin* tailerra lkerrekin, Larraulgo Ostatuan.

Maiatzak 9, bihar

19:00. *Mugimedu: XXI. mendeko txertoa eta ibuprofenoa*, Aitor Alberdi kirol teknikariarekin eta Idolo Garderekin, erabilera antzeko gelan.

Maiatzak 10, ostirala

18:00. Kronoigoera. Sariak parte hartzaile guztientzat.

19:00. Monoziklo tailerra.

Maiatzak 11, larunbata

12:00. Umeentzako duatloi herrikoa.

12:30. Umeentzako hamaiketako.

Maiatzak 12, igandea

18:00. Futbito txapelketaren finala (umeak/helduak).

19:00. Frontenis txapelketaren finala (umeak/helduak).

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da Tolosaldeko taberna baterako. Telefonoa: 647 446 363.

Operadorea. Logikaline enpresak teleoperadore lanpostu bat bete

behar du. Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera, euskara eta ingelese eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com helbidera edo deitu 943 3186 06 telefonora.

Kamioi gidaria. Olaso Elkartea SL enpresak LC+E gidabaimenak eta CAP-a duen esperientziadun kamioi gidaria behar du. Baldintza onak eta epe luzeko kontratua eskaintzen dira. Deitu 627 197 524 telefonora.



Alegian Sutarrik emango die hasiera udaberriko ekitaldiei

Alegiako Udalak prestatu duen kultur eskaintzan bertan behera geratu da gaur egitekoa ziren mahai ingurua; Langaurre Egunera joateko izena eman behar da

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Azkenean Sutarri dantza taldearen 20. urteurrenako festak emango dio hasiera Alegiako udaberriko kultur egitarauari, igandean. Gaur egitekoak ziren *Euskal Selektzioa*: gaur egun mahai ingurua, baina azken unean bertan behera geratu da, udazkenera atzeratuz.

Sanjoanak bitarte luzatuko dira ekitaldiak, eta Alegiako Iturri Zahar Guraso Elkartearen ikuskizuna gehitu behar da ekitaldi sortara. Hodei Magoaren *Tutti-magia* ikuskizuna antolatute, ostiralerako. 16:30ean, Alegiako kultur etxean izango da, doan.

Hilaren 15ean, Emoki elkartearen eskutik eta Iturri Zahar guraso elkarteak antolatuta, *Sare sozialak, bideo jokoak eta hauen erabilpen desagokiaren ondorioz sortzen diren menpekotasunak* hitzaldia izango da, 18:00etan, kultur etxean.

Hauetz gain, Murumendirako mendi irteeraz, udako zinemas edota sanjoanez gozatzeko aukera izango da. Ostean, herriko festak iritsiko zaizkie.



Goizeko ohiko mendi igoeraz eta hamaiketakoaz gain, Aranzadiko Txori Box tailerra egin zuten, iaz. ATARIA

LANGAURRE EGUNA, 19AN

Azken urteetan bezala, aurten ere, Langaurre Eguna ospatuko dute, hilaren 19an. Norberak bere bazkaria eraman beharko du aurten ere. Udalak mahaiak, aulkiak eta edaria jarriko ditu eta horretarako bazkaltzera igokodan pertsona kopurua jakin behar dute. Izena emateko epea maiatzaren 12ra bitartean dago zabalik, eta Iskiña, Hilario Berri eta Jubilatuen tabernetan eta kultur etxean dauden orrietan eman beharko da. Zerrenda horietan bakarka edo taldeka eman daiteke izena eta taldeka ematen

bada, taldeko kideen kopurua zehaztu beharko da.

11:30ean iaz jarri ziren habi kutxetara bisita bat egingo da. Fauna eta landare behaketa bat ere bai Aranzadi zientzia elkartearen eskutik. Ikastaro horretan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute ostirala baino lehen, kultur etxean.

Jendea Langaurrera oinez igotzea bultzatu nahi da batzordeetik. Alegiako Mendi Asanbladak 09:30ean jarri du hitzordua, Tontokalen. Elkarrekin igota, 11:00etan hamaiketako eskainiko da. Oinez igotzeko asmoa

dutenek, izena emateko orduan zehaztu beharko dute hori. «Langaurrera igotzeko modu hau leheneste aldera, oinez igotzen direnei bazkaria igotzeko garraio zerbitzua eskainiko zaie, igoera modu erosoagoan egiteko», adierazi dute udaletik.

Azkenik, egunean bertan mahaiak deskargatzeko eta kargatzeko esku bat botatzea eskatzen zaie bertaratuko direnei: «Denon laguntzarekin denbora gutxian guztia prestatu eta jasotzeko modua egingo baita». Eguraldi txarra egingo balu, festa bertan behera geratuko litzateke.

UDABERRIKO EGITARAUA

Maiatzak 12, igandea

11:30. Kalejira, herrian barrena.

14:00. Herri bazkaria.

16:30. Erromeria, Elizagoien ahizpen eskutik.

Maiatzak 15, asteazkena

18:00. *Sare sozialak, bideo jokoak eta horien erabilpen desagokiaren ondorioz sortzen diren menpekotasunak*, hitzaldia. Iturri Zahar guraso elkarteak antolatuta, kultur etxean.

Maiatzak 19, igandea

Langaurre Eguna.

09:30. Tontokaletik oinez abiatu.

11:00. Hamaiketako Langaurren.

11:30. Habia-kutxetara bisita, eta fauna eta landare behaketa.

14:00. Bazkaria.

Maiatzak 25, larunbata

Intxurre futbol taldearen denboraldi amaierako festa, plazan.

Maiatzak 26, igandea

Murumendira mendi irteera.

Ekainak 7, ostirala

22:00. Sutarri dantza taldearen ikasturte amaierako emanaldia Elorri pilotalekuan.

Ekainak 14, ostirala

22:00. Udako zinema: *Dantza* Erbeta pilotalekuan.

Ekainak 23, igandea

21:00. San Joan sua, plazan.

Ekainak 24, astelehena

San Joan eguneko eta Korputseko zahagi-ardoa, plazan.

Kulturaren eta energiaren hilabetea, Orendainen

Orendaingo Udalak kultur eskaintzaz gain, prest ditu energia eta dirua aurrezten ikasteko hiru tailer

E. Maiz Orendain

Pasa den asteburuan eman zioten hasiera Maiatza Kulturalari Orendainen. Liburu ale berrien aurkezpena egin zuten larunbatean, eta erosi berri dituzten 50 aleak jendaurrean jarri zituzten. Laida Plazaola, udaletxeko partaidetza teknikariak azaldu duenez, «udaletik apustua egin dugu liburutegiko euskararen apalari indar gehiago emateko».

Horrez gain, San Isidro eguna ospatuko dute, eta esaterako, igandean, hilaren 19an, 17:30etik aurrera herriko adinekoek baserrian bizi izan dituzten esperien-



Larunbatean udaletxeko arkupeetan jarri zituzten liburuak. I. SAIZAR

tziek ariko dira, Arantxa Iturbe kazetari eta idazleak gidatuta.

HIRU TAILER

Udalak *Gipuzkoa Argitu* izeneko tailerretan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak. Lehena bihar bertan izango da. Etxean erosotasunik galdu gabe energia eta dirua aurrezteko, eta etxebi-

zitzen eraginkortasun altuko birgaitzei buruzko saio praktikoak dira.

Ostegunetan, 17:00etan hasiko dira ordubeteko saioak, eta beharrezkoa da aldeztu aurretik izena ematea. Idatzi *agenda21@orendain.eus* helbide elektronikora edo deitu 943 65 40 64 telefono zenbakira.

MAIATZA KULTURALA

Maiatzak 18, larunbata

13:00. Meza.

14:00. Baserritarren bazkaria, Ostatuan. Izena eman behar da hilaren 16a baino lehen.

17:30. Solasaldia, Desazkundea gizar mugimenduaren eskutik: *Gutxiago gehiago da*.

Maiatzak 19, igandea

17:30. Solasaldia *Adinekoen bizi esperientzia baserrian*, Arantxa Iturbe kazetariak gidatuta, eraikin berrian.

Maiatzak 25, larunbata

16:30. Ogi egiteko tailerra, Tolosako Garia okindegiaren eskutik, elkarte-antolatuta. Gehienez ere, 15 pertsonak parte hartu ahal izango dute, eta izena eman da udaletxean.

TAILERRAK

Maiatzak 9, osteguna

17:00. *Eskuratu zure argindar kontsumoaren datuak eta murriztu zure kontsumoan* tailerra, eraikin berriko liburutegian.

Maiatzak 16, osteguna

17:00. *Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu gabetaile*rra izango da, eraikin berriko liburutegian.

Maiatzak 23, osteguna

17:00. *Eraginkortasun altuko birgaitzea: zure etxerako baliagarria, dirua aurrezteko eta osasuna irabazteko*. Eraikin berriko liburutegian.

Oharra: Ordubeteko saioak dira eta aldeztu aurretik izena eman da.



Udal hauteskundeetan ibartarrek datozen lau urteetan udalean ariko diren alkate eta zinegotziak aukeratu beharko dituzte, 11 guztira. Gaur egun, EH Bilduk du gehiengoa eta udal gobernua, 6 zinegotzirekin. EAJk bost zinegotzi ditu. Aurten, hiru alderdik aurkeztu dituzte hautagaiak: EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEk.

Irati Saizar Artola

Igor Zapirain Lizarribarrek (Tolosa, 1975) 14 urte zituenetik Ibarrran egin du bizitza. Elektrizitate, elektronika eta mekanika industrialeko ikasketak ditu, eta azken 22 urteotan enpresa bateko produkzio-ingeniaritza sailean egin du lan.

Zergatik eman diozu baiezkhoa alkategai izateko eskaintzari?

Urte asko daramatzat Ibarrran lanean, bai kultur eragileetan, baita ikastolarekin ere. Apustu hau mahai gainean jarri zidatenean asko hausnartu behar izan nuen, ez bainaiz inoiz horrelako gai batean ibili. Baina iruditzen zitzaidan eragile nagusi bat izan nintzekeela lantaldearekin batera.

Zein motatako Ibarra irudikatzen duzu alkatezara iritsiko bazina?

Osatu dugun lantaldean aurpegi berriak ditugu, guztiak arlo ezberdinetatik gatozenak. Horrela, herri programa osatzerakoan lau ardatz jarri ditugu: politika feminista, ibartarrak erdigunean, kultura eta euskara, eta etxebizitza eta gazteria.

Ardatz horietatik abiatuta, zein proiektu egingo dituzue?

«Parte hartzea bultzatzen segiko dugu»

IGOR ZAPIRAIN EH BILDUKO ALKATEGAIA

Politika feminista, ibartarrak erdigunean, kultura eta euskara, eta etxebizitza eta gazteria izango dira herri programako ardatz nagusiak.



MIKEL IRAOLA

Adibidez, politika feministan, ikuspegi feminista zabaltzen ja-

rraitu nahi dugu, zeharkakotasunez edo modu transbertsalean erroto nahi dugu, bai herrian eta baita udalgintzan ere. Hala nola, hirigintzan, kirolean, ingurunean eta gizarte zerbitzuetan. Ibartarron bizitza erdigunean esaten dugunean, guztiak barne hartu ditugu, nola gazteria, hala hirugarren adinekoak. Gure asmo eta erronka nagusienetako bat da gazteria herrian bertan geratzea eta kanpotik etorri nahi dutenek ere apustu hori egiteko aukera izatea. Horrek, etxebizitzaren alternatiba bat ematen saiatuko gara; etxebizitza berriak egiteko proiektu batzuk ere baditugu.

Azken agintaldian hasitako lanari jarraipena emango dionue?

Lehendik hasitako lanekin jarraituko dugu, bai. Adibidez, Izaskungo frontoiaren berraztertze bat dago; Izaskungo bidearen zabaltzea eta herrian bertan aparkalekuak egiteko asmoak ere hor ditugu. Gai asko dauzkagu mahai gainean.

Sektore guztiak kontuan hartzeko zein neurri hartuko dituzue?

Lehen sektorean, esaterako, ingurumenari dagokionean, Ibarrrako piperra daukagu. Piperraren Mahaia sortu zenetik sentibilizatuta gaude eta saiakera bat

egin nahi dugu piperrarekin aurrera jarraitzeko. Bigarren sektorean, berriz, Apattako industria-gunea dela eta, hainbat enpresa eta sindikaturekin hitz egitea gustatuko litzaiguke, Ibarrrako langabezia tasa nola jaitsi aztertzeko. Azkenik, hirugarren sektoreari begira, martxan dauden proiektuak hartuko genituzke kontuan, adibidez, osasun arloan, Ibarra Martxan bezalako proiektuak. Horrelako taldeekin harremana estutu eta aurrera jarraitzea gustatuko litzaiguke, orain arte bezala. Gaztezulo zerbitzua ere aurreko agintaldian hasi zen eta jarraipena eman eta indartzea nahi dugu.

Zer eskainiko dio EH Bilduren udal taldeak Ibarrari?

Taldeakideak herrian bizi garen lagunak gara, eta herria aurrera egiten ikusi nahi dugu gure seme-alaben etorkizuna bermatzeko, kalitate onean.

Nola egingo duzue lan?

Herri programan jarri ditugun lau ardatzak, eragile ezberdinei bidalitako galdeketetan lortutako emaitzen arabera erabakiko dira. Azken batean, etorkizunean, jendeari galdetzen eta parte hartzea bultzatzen jarraituko dugu.

Ibarrrako udaletxean urteetan zinegotzi aritutakoa da Itziar Jauregi Huarte (Ibarra, 1956). Herri oso baten ongizatea bermatzeko lanean hasteko gogoz dagoela adierazi du.

EAJren bozeramalea izan zara azken urteetan udalean. Zein balorazio egiten duzu?

Egia esan gauza asko erakutsi dizkidan esperientzia izan da. Baditu bere alde onak, jendearekin oso harreman estua duzu edota iritziak partekatzen dituzu, baina alde negatiboak ere baditu, kexu guztiak zuretzat izaten baitira, eta horretarako ere prest egon behar duzu. Nik hori ere bizi izan dut, eta batzuetan gogorra da.

Zein da EH Bilduren udal gobernuaren inguruan duzun iritzia?

Esan behar dut beraien ideiak konpartitzea asko kostatzen zaiela. Eta konpartitzen dituztenean, guztia eginda eta erabakita egoten dela, eta ez dute entzuten. Zurekin kontaktatzen dutela ikusarazi nahi dute, baina beraien kabuz dabilta beti. Haiek lan egiteko modu bat dute, eta guk beste bat daukagu. Guri erabakiak denen artean hartzea

«Herri bizi bat nahi dugu, ez lo egiteko bakarrik»

ITZIAR JAUREGI EAJ-KO ALKATEGAIA

Zaborrontzien ordutegi finkoa kentzearen alde egingo du Jauregik; Ibarra utzita eta zikinduta dagoela egotzi dio udal gobernuari.



I. SAIZAR

gustatzen zaigu eta ea akordioetara iritsi gaitezken ikusi.

Zuek nolako lantaldea osatu duzue?

Adin desberdinetako jende osatu dugu, denen ikuspuntua edukitzea oso garrantzitsua baita. Lan egiteko gogoia duen taldea da, behar desberdinak ikusten dituen eta denen artean Ibarrari bira bat eman nahi dugu, herri bizi bat izan dadila eta ez lo egiteko herri bat bakarrik.

Zein proiektu landuko dituzue?
Badaude segituan lortu daitezkeen helburuak, adibidez, zaborrontzien ordutegi finkoa kentzea. Zortzi urte daramatzagu gai honekin eta ibartarron erosotasunera eta askatasunera

iristeko unea iritsi da. Bestetik, Ibarra garbi edukitzea nahi dugu, utzita eta zikinduta ikusten baitugu; alokairu soziala eta oinezkoen segurtasunaren alde ere egingo dugu, orokorrean, garrantzitsuak dira guretzat.

Zein lan ildo proposatzen dituzue datozen urteetarako?

Guk taldean lan egin nahi dugu eta Ibarrrako herritar guztiekin. Azken batean, beraiek dira benetako beharrak aipatu dizkigutenak.

Ibarra paraisi egoeran dagoela esan izan duzue. Zer da oker?

Nik beste galdera batekin erantzungo dut: Zer egin da Ibarrran

azken 8 urteetan? Ibarra lo egiteko herri bat bihurtzen ari da gure ustez eta hori ez da batere ona. Ondoan Tolosa daukagu eta etxe baten moduan erabili ordez, bertan egiten diren ekin-tzak erabili beharko genituzke gure herria ezagutzera eramateko. Daukaguna erakutsi eta aldarrikatu egin behar dugu.

Ibarrrako ekonomia, ostalari-tza eta merkataritza indartuko dituzuela esan duzue.

Nola egingo duzue hori?

Adibidez, baimenak eskatzera-ko orduan erraztasunak emanez. Burokraziarekin eta ordainketekin lagundu, hasieran batez ere. Aurrera atera ahal izateko ikerketak egin behar badituzte, zein pauso eman behar dituzten esango diegu. Laguntza eman eta oztoporik ez jartzeari da gure asmoa.

EAJ alderdiak zer eskainiko dio Ibarra bezalako herri bati?

Herri oso baten ongizatea, auzo guztiena, eta hori azpimarratu nahiko nuke. Herriko atal guztien ongizatea, eta hori denon artean lan eginez bakarrik lortuko dugu. Bakoitza bere alde-tik ibiltzen bagara, gaizki.



Maiatzaren 26an herriko 11 zinegotzi aukeratuko dituzte zizurkildarrek. Hiru alderdik aurkeztu dituzte hautagaitzak: PSE-EEK, EAJk eta EH Bilduk. Gaur egun, zinegotzi bakarra da sozialista, lau ordezkari dituzte jeltzaleek eta koalizio abertzalearena da udal gobernua, sei zinegotzirekin. Hautagai sozialista ezik, gainerako bi alkategaiak berriak dira.

Jon Miranda

Lasaitasuna ematen dio Iker Urruzola Aizpuruari (Zizurkil, 1976), aurretik herrigintzatik ezaguna dituen kideekin EH Bilduren hautagaitza osatzea. Hainbat mugimendutan aritu da orain arte, besteak beste, herriko erraldoi eta buruhandien konpartsan. **EH Bilduk udal gobernura iristea lortzen badu, aurrekoaren jarraipena egingo du?**

Lehenik eta behin aurreko bi legegaldietan ardurak izan dituztenei eskerrona adierazi nahi diet. Hasitako bide horri jarraipena emango diogu, ikusi dugulako egindako lana benetan aberasgarria izan dela: udalaren zorpetze maila jaistea lortu du EH Bilduren udal gobernuak, eta horrez gain, hainbat proiektu eraman ditu aurrera.

Feminismoa, euskara eta parte hartzea. Hiru zehar lerro aipatu dituzue.

Parekidetasuna mantendu dugu hautagaitzan, baina argazkitik harago doa. Zerrenda feminista da, ardatz nagusi bat da guretzat. Edozein arlo jorratzen dugunean presente izango dugu beti. Zehar lerro, zutabe eta ardatz, esango

«Herrigintzan jarraitu nahi dugu, udalean ere»

IKER URRUZOLA EH BILDUKO ALKATEGAIA

Orain arte udal gobernuak egin duen lanari jarraipena eman eta udalak herritarrekin duen harremanean sakondu nahi dutela dio alkategaiak.



J.M.

nuke. Gure hizkuntza, herriaren altxorra eta bihotza da, hori gabe galduta gaude. Parte hartzeari

dagokionez, ondo funtzionatzen duten moduak mantendu nahi ditugu. Udala ez da eraikin huts bat, udalak herrira atera behar du, eta batzorde horiek sustatu behar ditugu herritarrekiko komunikazio horretan eragiteko.

Batzatze herritarrek saihe-bidea eskatuz egindako aldarrikapenekin?

Bai. Herritarrak antolatu dira eta horrek berebiziko poza ematen digu. Diputazioan daudenak jakin dezatela Zizurkilen trafikoa arazo bat dela. Hori konpondu beharra dago, bai ala bai, eta azkar. Ez ditugu onartzen orain jaso diren erantzunak, dauden zuloak estaltzea eta adabakiak jartzea ez

da soluzioa. Bestalde, Bulandegi bidea irisgarriago egiteko ez gara saihebidetaren zain egongo eta udal gobernura iritsiz gero, guk berehala hasiko ditugu lanak.

Zer esango zenieke herritarrei?

Ez nuke handikeria keinurik egin nahi. Herritarrek ezagutzen gaituzte. Zerrendan goazen denok erakutsi dugu gure gaitasunak zeintzuk diren. Herrigintzatik, egunerokotasunetik eta lanetik ezagutzen gaituzte, borondateko lanetik. Bide horretan jarraitzeko asmoa dugu eta xumetik lan egiteko gogoia dugu. Herrigintzatik gatoz eta herrigintzan jarraitu nahi dugu, udalean ere.

«Ni izan naiz oposiziotik lanean jardun duen bakarra»



ATARIA

JOSEAN SANCHEZ PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Urteotan alderdien arteko harremanak hobetu direla uste du.

Lau urte zinegotzi gisa eman ditu Zizurkilen Josean Sanchez Almarazek (Donostia, 1971). Hurrengo agintaldian talde sozialistak izango duen erabakimena «handia» izango dela uste du.

Zein iritzi duzu EH Bilduren kudeaketaz?

Oraindik ere, beste taldeen iritzia kontuan hartu gabe erabakitzen jarraitzen du koalizio abertzaleak, oposizioak egindako zenbait proposamenekin bat datozeela esan bai, baina gero ez dituzte proiektu horiek gauzatzen.

Adostasun batzuk ere erdietsi dituzue, hala ere.

Hondakinen kontuarekin ezinegon handia zegoen herrian, eta 2015eko hauteskundeetan botoa asko polarizatu zen; askok jo zuten EAJra hura bozka eraginkorra zelakoan. Lau urteotan ikusi da, ordea, alderdi jeltzaleak ez duela ia oposiziorik egin, ni izan naiz oposiziotik lanean jardun duen bakarra. Nik beharrezkoa ikusi nuen tentsioa jaistea eta akordioa bat erdiestea EH Bildurekin.

Zuen botoa erabakigarria bultzatzen zenukete?

Ez dugu hitz egin sakontasunez alderdi barruan. EAJ da lehentasunezko sozioa. Baina, nik gaur gaurkoz, ez dut ezer alboratzen.

ELKARRIZKETAK OSORIK

Alkategaien elkarrizketa guztiak osorik irakurri ahal dira www.ataria.eus webgunean.

Elizpe erretiratuen elkarteko lehendakaria izan da orain arte Trini Altimasberez Borja (Tolosa, 1954). 22 urte daramatza Zizurkilen eta orain, EAJren hautagaitzan alkategai da. Ia osorik, emakumez osatutako zerrenda da.

Zer nola baloratzen duzu azken urteotan EH Bilduk eraman duen kudeaketa?

Diru asko kosta gabeko gauza asko egiteari utzi dio EH Bilduk. Utzikeria egon dela uste dut. Nik esango nuke, agintaldi hasieran zeuden arazo askok hor jarraitzen dutela. Nabarmenetako bat zikintasuna da. Pankartak eta pintaketak daude lekuz kanpo. Gure lehentasuna txukuntasuna mantentzea da eta elkarteekin lan egingo dugu espazioak aurkitzeko, propaganda eta publizitatea egin ahal izateko, beti ere, hirugarren batzuk kaltetu gabe.

Ekonomia arloan, baduzue egitasmo zehatzik?

Industriaguneak bultzatu behar direla uste dugu, Tolosaldea Garatzenekin elkarlanean eta Area 15 izeneko gunearrentzat soluzio bat bilatzen saiatuko gara. Azterketa egin egingo dugu, baina ez da kontu erraza. Dena pentsatu beharra dago, ezin dugu kea sal-

«Gure lehentasuna txukuntasuna da»

TRINI ALTIMASBEREZ EAJ-KO ALKATEGAIA

Ongizatea zizurkildarrentzat eskubidea izan behar duela uste du eta inor ere bazterrean utzi gabe, herri osasungarria bultzatu nahi du.



J.M.

du, hankak lurrean ditugula egin behar ditugu proposamenak.

Zuek ere babesten duzue Biala Orain taldearen eskakizuna?

Bai, noski. Herritarrek aspalditik egindako eskaera da saihebidetaren eta guk behar den tokira eramango dugu eskakizun hori. 2004an, gu udal gobernuan geundela, saihebidetaren aurreproiektua osatu genuen, saihebidetaren horrek izan behar zuen trazatua azalduz. Gu udalera iristen bagara, batzorde bat osatuko dugu, Biala Orain taldean antolatuta daudenekin, udal teknikariekin eta udal ordezkariekin.

Hautagaitza ia guztia emakumez osatuta dago. Zergatik?

Ez ginen bakarrik emakumez osatutakoa sortzeko asmotan

hasi, baina horrela suertatu da azkenean. Esperientzia duen jendea badago, baina jende berria ere bai, eta nik uste, kanpotik gatozenak badakargula freskotasan bat.

Sozialisten taldearekin negoziatzeko prest egongo zinatekete udal gobernu osoa osatzeko?

Ez dakigu. Emaitei begira egongo gara. Atea ez dago itxita. Azken batean, gauza hauek ez dira hemen Zizurkilen erabakitzen eta alderditik zein irizpide datozen ikusi beharko dugu. Alkatetzan edo oposizioan egon, ea gai garen talde guztiekin lan bat egiteko, alderdikeriak alde batera utzita.



Madina, Olano eta Larruzea, helmugan. IÑAKI GURRUTXAGA/GOIERRIKO HITZA

Olanok errekorra, Segura-Zerainen

Erredakzioa

Iñaki Olano altzotarrak irabazi zuen Segura-Zerain mendi lasterketa trail modalitatean. 25 kilometro eta 1.600 metroko batatz besteko malda positiboa zuen ibilbideak, eta Olanok errekorra jarri zuen, 100 euroko sari gehigarria irabaziz. Altzotarrak 7 minutuan ondu zuen iaz Julen Larruzea larrabetzuarrak, aurtengo

bigarren sailkatuak, jarritako denbora eta 2.06.20an utzi. Olanok lasterketa handia egin zuen, bigarren sailkatuari 8 minutu ateraz. Hirugarrena Ibai Madina berrobotarra izan zen, 2.14.38ko denborarekin. Esprint modalitatean, 15,3 kilometroko ibilbidean, Jon Altuna ibartarrak hirugarren amaitu zuen, irabazlearengandik minutu eta 42 segundora.



IRENE CAMINOS, BIGARREN

Espainiako Trial Kopako lehen proba jokatu da asteburuan, Azuqueca de Henaresen, eta Irene Caminos tolosarrak bigarren egin du. «Ez nintzen oso gustura ibili. Ez nintzen ondo sentitzen bizikleta gainean eta lehen itzulia oso gaizki joan zitzaidan. Bigarren goan dezente hobetu nuen eta hor lortu nuen bigarren postua», azaldu du Caminosek. ATARIA

V.ataria pilota txapelketa

Bosgarrena

ESKUZ

BENJAMINAK B

VILLABONA

Gurrutxaga-Gartzia	14
Arteaga-Nazabal	16
Artola-Elosegi-Galarraga	9
Aburuza-Barriola	16
Urruzola-Gorriti	16
Telleria-Ipentza	7
Astibia-Aizpuru	16
Fernandez-Ardanaz	7
Lanzeta-Iraola	16
Etxetxipia-Maritxalar-Castro	4

ALBIZTUR

Aldalur-Arandia	16
Martin-Saizar-Artola	12
Setien-Gonzalez	16
Malkorra-Arsuaga-Goikoetxea	3
Zubillaga-Saizar	16
Estevez-Labaka	1
Dieguez-Albizu	4
Sagarna-Kamio	16
Otaño-Gurrutxaga	16
Mujika-Altuna	10

IRURA

Mintegi-Acosta	16
Irastorza-Agirre	13
Aperribai-Esnaola	-
Azpilikueta-Mendia	-
Agirrezabala-Irazusta	4
Telletxea-Zabala	16
Arruti-Val-Roteta	12
Aierdi-Hermida-Ibarbia	16
Saralegi-Saralegi	15
Ruiz-Eizagirre	16

BENJAMINAK A

BERASTEGI

Sanchez-Aljostes	12
Vidaurreta-Lacarra	16
Leo-Zubillaga	13
Zubillaga-Tejeria	16
Gabarain-Rehecho	3

Lacarra-Erro	16
Aseginolaza-Aldaz-Martinez	16
Urkola-Iraola	12
Aranalde-Navas-Baleztena	16
Maioz-Maioz	8

ASTEASU

Larrarte-Garmendia	16
Urbietia-Azkarate	10
Otaegi-Mayoz	16
Sarasola-Agirre	5

IBARRA

Artola-Freitas Dos Santos	16
Ariño-Altuna	5
Zaldua-Etxetxipia-Lasa	4
Karrera-Artola-Belaunzaran	16
Iparragirre-Tejeria	16
Galarraga-Gurrutxaga	12
Rementeria-Irastorza	10
Aranburu-Azurmendi	16
Argote-Del Rio	7
Arruabarrena-Altuna	16

ALEBINAK

ALTZO

Artola-Karrera	14
Jauregi-Mendia	16
Murua-Elola	16
Izagirre-Segurola	2
Aristeta-Barbero	16
Iturbe-Gurrutxaga-Etxart	3
Fresneda-Irastorza	14
Agirre-Tolosa	16
Labaien-Ugartemendia	9
Larrarte-Oñate	16

ZIZURKIL

Meulman-Otaegi	16
Caminos-Gartzia-Urbietia	3
Goñi-Iturrioz	13
Goenaga-Olasagasti	16
Iparragirre-Aranburu	16
Artola-Mintegi	1
Goikoetxea-Rozas-Olano	5

Imaz-Pablo	16
Insausti-Lopetegi	16
Aburuza-Irazu	6

IKAZTEGIETA

Altuna-Perurena	16
Zaldua-Lanzeta	2
Arrieta-Arruabarrena	9
Ayestaran-Saralegi	16
Elola-Unanue	16
Alvarez-Garzia-Gorostiaga	3
Ugartemendia-Gorostiaga	4
Agirrezabal-Lanzeta	16
Zubillaga-Lobo	16
Tejera-Tolosa	7

INFANTILAK

AMEZKETA

Cestau-Miner-Zabala	13
Dorransoro-Iraeta	18
Gorostidi-Mujika	18
Iturrioz-Onsalo	7
Tolosa-Aranzadi	18
Otegi-Zabala	17

PALAZ

ALEBINAK

BIDANIA

Juanena-Beobide	18
Zabala-Iruretagoiena	9
Saizar-Agirrezabala-Villena	14
Zubillaga-Polo	18
Agirre-Etxarri	18
Ezeiza-Juantorena	3
Agirre-Murua	18
Goikoetxea-Amundarain-Lasa	12

KADETE-JUBENILAK

BIDANIA

Olano-Karrera	22
Iturrioz-Aranburu	25
Agirre-Murua	25
Urkola-Herrero	11

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

- TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
- HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
- ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Tolosa CF Eskubaloia ligak irabazi du eta Malagara joango da bigarren mailarako igoera lortzer.

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosa CF Eskubaloia azken partidaren lortu zuen ligako txapelketa irabazteko. Bere partida irabazita, Tolosak Anaitasunarekin berdindu zuen puntuetara sailkapenean eta tolosarrek bi taldeen arteko norgehiagoketan emaitza hobeagoa zuten, txapelketa geratu ziren. Zazpikoa batera ederki ospatu zuten, baina orain beste erronka bat dute eskubaloia jokalariek: zilarrezko mailara igozteko fasea. Maiatzaren 17, 18 eta 19an jokatu da eta Tolosari Malagan jokatzeko egokitu zaio.

Denboraldi hasieran igoera fasea jokatzeko zuten helburu, Alex Nogues entrenatzaileak zehaztu duenez. «Igoera faseari begira ligaren lehen edo bigarren geratzeko ez du ezberdintasunik, baina denboraldia nola joan den ikusita, eta aukerak zeudela liga irabazteko, bigarren helburu bat izatera pasatu zen», azaldu du entrenatzaileak. «Denboraldi konplikatuagoa izan da aurtengoa, sailkapeneko erdialdean egon ohi diren taldeek bere joko maila hobetu dutelako, bai jokatu eta baita fisikoan ere. Batez ere partidak jokatzera kanpora joaten ginean nabaritzen genuen alda-



Tolosa Eskubaloia taldeko kideek liga irabaztea ospatu zuten Usabal kiroldegian. J. ARTUTXA

Malagan jokatu dute igoera fasea

keta hori». Astelehenean egin zen igoera faseko egoitzen enkantea eta leku bakoitzean zein taldek jokatu duten erabaki zuten ere, zozketa bidez. Tolosak Malagan jokatu du, eta bere aurkariak etxeko taldea, Gaes Malaga, eta Sant Quirze kataluniarra eta Ikasa Madrid madrildarra izango dira. Lehen egunean Ikasa Madrid dute aurkari, bigarren kataluniarren aurka jokatu dute, eta azken egunean etxekoen kontra ari-

tzea egokitu zaie. Gaes Malaga ligako bere multzoan bigarren geratu zen. «Oso atezain ona dute, Asobalen jokatu izan duena, eta urte askoan zilarrezko mailan aritu dena. Argentinaren bat ere badute, Asobalen ere hainbat urtetan ibilitakoa. Beraz, jokalariek beterrano eta onak dituen taldea da».

Ikasa Madrid taldearen aurka jokatu zuten Tolosakoek, zilarrezko mailan egon zirenean. «Atzeritar bat dute, zilarrezko

mailan aritu zena, eta, bestetik, etxeko jendea dute. Harrobiko jendea dute, gurearen antzekoa». Lehenak geratu dira ligako bere multzoan.

Sant Quirzekoek parte hartu zuten orain hiru urte Tolosan jokatu zen igoera fasean. «Bera zen orduan erreferentziatzeko taldea, igozteko faboritua zena, baina azkenean gu igo ginen. Urte hauetan igoera fasea jokatu ari dira, baina ez dute lortu. Jokalariek bat dute, pibote be-

zala aritzen dena, eta zuzendari teknikoa moduan dabilena, Asobalen jokatu aritu zena. Bera da taldearen erreferentzia. Atezaina ere Barça B taldean izan zen. Kalitatezko taldea dute, eta Katalunian egiten den jokoa beti izaten da azkarra».

Maila handiko multzoa tokatu zaiela dio Noguesek: «Ikusi behar da ea jokalariek on horiek nola erantzuten duten, edo taldeko joko indartsuan oinarritzen diren taldeak, gurea bezalakoa, horrelako txapelketa batean zer erakutsi dezaketen». Igoera fasea xehetasunetatik erabakiko dela dio, bukaeran berdinketa bat baino gehiago egon baitaiteke, eta orduan jasotako eta egindako gol kopuruak ere berebiziko garrantzia izango dutela gaineratu du entrenatzaileak. «Gu lehiatzen joango gara, eta lortutako emaitzaren arabera ikusiko dugu gero ze erabaki hartzen dugun datorren denboraldiari begira», gaineratu du Noguesek.

Ligaren azken partidetan txapelketa geratzeko borroka ehuneko ehunean aritzea eta maila hori mantentzea ahalbidetu die. «Gure joko motari eutsi diogu eta lehiakortasun maila onari eutsi. Une on batean utzi gaitu, denok parte hartuz», esan du Noguesek. «Jokalariek denak txandakatu daitezke, eta nekeen edo jokalariek duen egunaren arabera, erabakitzen duzu zeinek jokatu duen gehiago. Taldea oso ondo dago».

«Eskertzekoa da atletek egiten duten esfortzua»

Tolosa CF Atletismoa taldeko emakumeak hirugarren eta gizonak seigarren, Euskadiko Klub Artekoa.

I. Garcia Landa Tolosa

Ez zen erraza iazkoa errepikatzea, hau da, bai emakumezkoek zein gizonezkoek podiumera igozteko. Saiatu ziren, baina larunbatean jokatu zuten Euskadiko Klub Arteko Txapelketan, aire librean, Tolosa CF Atletismoa taldeak hirugarren postua lortu zuen emakumezkoetan eta seigarrena gizonezkoetan. «Pista estalian aurreko lehen lortu genuen bi taldeak podiumean

izatea eta gustatuko litzaiguke hori errepikatzea, baina lehiaketak ez du zerikusirik bata bestearekin, aire librean proba gehiago baitaude», esan du Lander Gilek, taldeko entrenatzaileetako batek eta atleta bezala parte hartu zuenak. «Bi taldeei eman behar zaizkie zorionak. Aipagarria da atletek beraiekin probak ez direnak egiteko eta taldearen zatitua puntuak ateratzeko duten jarrera ona. Eskertzekoa da atletek egiten duten esfortzua».

Emakumezkoetan aukera gehiago ikusten zitzuten hirugarren postua lortzeko eta eskuratu zuten. «Mutiletan kontziente ginen zailago zela errepikatzea, nesketan maila altuagoa delako momentu honetan. Azkenean

seigarren postuarekin geratu ginen. Ez da postu txarra, maila dezente igo delako, eta kontuan hartu behar direlako izan ditugun bajak. Nik uste dut taldeak ondo lehiatu zirela», gaineratu du Gilek.

Emaitza nabarmenena emakumezkoen 4x100 erreleboetan lortu zuten. Proba hori irabazi egin zuten, Euskadiko txapelketa bihurtuz, eta 49,20 denborarekin klubeko marka hobetu zuten. Maddi Lillo, Ainhoa Gibelalde, Laura Biurrun eta Nora Ituarte izan ziren lauak osatu zutenak. «Oso ondo egin zuten korri, lekuko aldaketak oso ondo egin zituzten. Esan beharra dago lauak zaharrenak 22 urte dituela, eta hori ere nabarmen-



Tolosa CF taldeko emakumezkoak, eskuinean, podiumean. ATARIA

koa da. Ikusita talde gaztea dela, garapenak jarraituz gero, klubeko marka jaitsi daiteke», esan du Gilek. «Orokorrean nabarmen duko nuke talde gazteek parte hartu dutela txapelketan. Eta horrek ere balio bat du. Orain arte bezala jarraituz gero, eta nik uste du lana ondo egiten ari garela, emaitza hobeagoak iristeko aukera egon daiteke».

Talde giroa ondu dela nabar-

mendua du Gilek, eta gaineratu du klubetik horri garrantzia ematen zaiola: «Taldea bat gara eta talde bezala funtzionatu badugu emaitzak lortzen dira. Eskertu behar da denen esfortzua. Talde giroa garrantzitsua da. Azkenean garaipenak indibidualki lortzen dira, baina beti dago taldea atzean. Talde bezala funtzionatu duzunean dena da askoz errazagoa».



ASTEAZKENA, 2019KO MAIATZAK 8
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaledea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak



GARBIALDIKO LANGILEAK GREBAN

Epaitegi eta polizia etxeetako garbitzaileek manifestazioa egin zuten atzo, Tolosan. «10 urte goaz soldata igoerarik gabe; KPI-a ere ez digute igotzen», salatu zuten. Tolosako epaitegiaren aurrean elkartu ziren Garbialdiko langileak eta gogoratu zuten 7 hilabete eta erdi direla greba hasi zutela. Epaitegi eta polizia etxeetako egoera «oso larria» dela esan zuten: «Kanpotik ez da ikusten, baina Eusko Jaurlaritzatik ere kexaka ibili dira, egoera oso larria delako». A. IMAZ

ASTEAZKENA 08

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Pausoka, adinak ez du in-porta ekimena, 10:00etan.

Zizurkil. Xaboi ekologikoak egiteko tailerra Fraisoro nekazal eskolan, 16:00etan.

Larraul. IV. Kirol Astearen barruan, frontenis txapelketaren hasiera 17:00etan eta *Energia behar baduzu: zer jan eta nola egin* tailerra, 19:00etan, ostatuan.

Anoeta. Lore jangarriak eta ki-muak tailerra 18:00etan, baratze parkean.

Tolosa. Sanjoanak antolatzeko jai bilera irekia, 19:00etan, kultur etxean.

Amezketeta. Denbora izeneko leku bat filmaren proiektzioa mendi-astearen barruan 19:30ean, kultur etxeko areto nagusian.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskual-

deko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Tolosaldea Garatzeneko tarteak, Oskar Tenaren *Artearen Txokoa* eta Mikel Ozaita *Kale Kan-toitik*.
12:00-13:00. Entzuteko jaioak.
16:00-18:00. Zebrabidea.
18:00-20:00. Goizeko onena.
20:00. (H)ari naizela.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
16:30. Ajoarrieroa.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
22:00. Izerditan.
22:30. Galdegazte.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Eburne Ben-goetxea Aiestaran.
Kale Nagusia, 7.
Telefono zenbakia: 943 67 06 48.
Gauekoa. Azpiroz Galarza, Lour-des. Amarotz auzoa, 9.
Telefono zenbakia: 943 67 5118.

EGURALDIA

GAUR **21° / 9°**
BIHAR **22° / 8°**

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

zozketak

Atarikideentzat **lau sarrera** ditugu

Postal Kolekzionistak.
'Azken gaua hirian'

lehen diskaren aurkezpen kontzerturako bi sarrera bikoitz zozketatzen ditugu.

Maiatzak 10, Ostirala
20:30 • Tolosa, Leidor.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus

urrate

BERRI ERAIKUNTZAK S.L.

Etxebizitzak
salgai
LIZARTZAn

Bulegoa: Plazaola kalea z/g LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 51
urrateberri@urrate.eus

ZUZENEKO ERAKUSTALDIAK, DASTAKETAK, OTORDUAK, TXULETA BAZKARIA.

EROSI ZURE SARRERAK:

www.haragi.eus

HARAGI

Tolosa, maiatzak 11 eta 12.

TXINGARRAREN ETA HARAGIAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA

#haragi